

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# PERTSONA ERREFUXIATUEI HARRERA UPV/EHU

2022

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)





# ERREFUXIATU ETA ASILO ESKATZAILEENTZAKO UPV/EHUren HARRERA PROGRAMA

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>2. HELBURUA .....</b>	<b>2</b>
<b>3. JARDUNBIDERAKO ILDO ESTRATEGIKOAK.....</b>	<b>2</b>
<b>3.1. Laguntza eskaini, egoera akademikoa eta unibertsitatera sartzekoa erregularizatzeko prozesuan.....</b>	<b>2</b>
<b>3.2. Laguntza eskaini, unibertsitatearen esparruko premia bereziak betetzeko .....</b>	<b>4</b>
3.2.1. Ostatura, garraioa eta mantenua .....	4
3.2.2. Ikasteko materiala.....	5
3.2.3. Hizkuntza ikastaroak.....	5
3.2.4. Beste zerbitzu batzuk.....	6
<b>3.3. Sentiberatzea eta eztabaidatzea sustatu .....</b>	<b>6</b>
<b>3.4. Diru-laguntzak.....</b>	<b>6</b>
3.4.1. UPV/EHUK babesaren alorrerako xedatutako funts ekonomikoa.....	7
3.4.2. Bestelako diru-laguntzak.....	7
<b>I ERANSKINA. UPV/EHUKO ERREFUXIATUEI ARRETA EMATEKO PROGRAMAN ARTATUTAKO GRADUKO IKASLEAK.....</b>	<b>8</b>

## 1. SARRERA

Unibertsitateak ezin daitezke axolagabe egon azken urteotan bizi dugun errefuxiatuen dramaren aurrean. Horregatik, unibertsitatea osatzen duten banakakoen inplikazioaz gainera, unibertsitateak, erakunde gisa, bere giza potentziala, baliabideak eta jakintza jarri behar ditu pertsona kaltetu hauen eskura, beren bizitza baldintzen hobe beharrez. Erantzukizun honez jabeturik, [Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarrak](#) (CRUE/EUEB), 2015eko irailaren 7an egindako batzar orokorrean, erabaki zuen ezen:

- Jatorriko herrialdean unibertsitateko ikasle diren errefuxiatuen sarbidea erraztea.
- Jatorriko herrialdean unibertsitateko irakasle diren errefuxiatuen lankidetzaz erraztea espainiar unibertsitateetan.
- Ikasleen arteko boluntarioritza ekintzak sustatzea, bestelako administrazio eta eragileekiko lankidetzan, bereziki, gizarte drama honekin lotura zuzena duten diziplinetan.

Bere aldetik, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), [Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean aho batez harturiko erabakiaren](#) bidez, bere egin zuen ezelako atxakiarik gabe asilo eskatzaileen eta errefuxiatuen eskubideen defentsa. Erabaki honetan eta CRUE/EUEBren batzar orokorrean 2015eko irailaren 7an adostutako helburuak erdiesteko helburuaz, konpromisoa hartu zuen errefuxiatuei Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan (EAE) harrera egin eta artatzeko hainbat ekintza egiteko. Ekintza hauek **lau jardun ildotan** laburbiltzen dira:

- 1) Laguntza eskaini, egoera akademikoa eta unibertsitateara sartzekoa erregularizatzeko prozesuan.
- 2) Laguntza eskaini, unibertsitatearen esparruko premia bereziak beteko badira.
- 3) Sentiberatzea eta eztabaidatzea sustatu.
- 4) Nazioarteko babesa duten pertsonen laguntza ekonomiko eta materiala.

Azken hilabeteetan izandako behartutako desplazamendu-krisien gorakadak, Afganistanen 2021eko abuztuan, [EUEBk Europako unibertsitate-erakundeekin batera akademiko eta ikasle afganiarrei babesa eta berehalako laguntza ematea](#) eskatzen zuenak, eta [EUEBk 2022ko otsailean gaitzetsi zuen Errusiak Ukraina inbaditu izanak](#), [Ukrainaren inbasio jasanezinari amaiera emateko deia indartzen duenak](#), errealitate berri baten aurrean jartzen gaituzte, eta horrek beharrezkoa egiten du errefuxiatuentzako arreta-programa hau eguneratzea.

[UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaz Bulegoa](#) da jardun ildo hauek martxan jarri, koordinatzeko eta eguneratzeko ardura duen administrazio unitatea, lankidetzan

oinarritutako lanaren filosofia oinarri harturik. Bulego hori Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren zuzendaritza- Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzaren menpekoa da.

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan, sarean egindako lana sustatzen da Euskal Gobernuarekin eta beste administrazio publikoekin, beste unibertsitate batzuekin, EUEBren eta G9 taldearen bidez, eta errefuxiatuen harrerako lehenengo fasean ari diren erakundeekin, hala [Errefuxiatuaren Laguntzarako Espainiar Batzordea](#) (CEAR), [Migrazioen Espainiar Batzorde Katolikoaren Elkarte](#) (ACCEM) eta [Espainiako Gurutze Gorria](#) (CRE).



## 2. HELBURUAK

UPV/EHUK honako helburu estrategiko hauen erdiesteko osatu du errefuxiatuak edo asilo eskatzaileak artatzeko programa hau:

- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan daudelarik, errefuxiatuak edo nazioarteko babesa eskatu duten pertsonak UPV/EHUrak sar daitezela erraztea, kidego honen goi hezkuntzarako eskubidea era honetara bermatzen lagunduz.
- UPV/EHUKo unibertsitateko kideen balio, jarrera eta ekintza solidarioak gara daitezela sustatzea, gizarte konprometitua osatuko badugu, milioika pertsona nor bere herrialdearen barruan nola erbestera joatera behartzen duten eskubideen urratzeen jakitun eta horiekiko kritikoa.

## 3. JARDUNBIDERAKO ILDO ESTRATEGIKOAK

Ondoren, zerrendatuko dira errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak artatzeko UPV/EHUKo programan jasotako lau jardun ildoetako bakoitzean garatutako ekintzak.

### 3.1. Laguntza eskaini, egoera akademikoa eta unibertsitatera sartzekoa erregularizatzeko prozesuan.

Hezkuntzarako sarbidea giltzarria da errefuxiatuak harrera herrialdeetan integratuko badira. EAera iritsi diren errefuxiatu asko unibertsitate ikasketak hasiak dituzte zeinek bere jatorriko herrialdean. Hala ere, ikasteari berrekin nahi diotenean, zailtasun espezifiko asko izaten dituzte. Oztopo hauen artean, nabarmentzekoa da informazio eta orientazio eza, bereziki, kredituen, kalifikazioen aitortzeari eta tituluen homologazioari dagokionean, unibertsitatera sartzeko ezinbestekoak direla kontutan hartuta.

UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak honako protokolo hau darabil pertsona hauen harrerarako:

- UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko pertsonalak errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak hartzen ditu, EAEn errefuxiatuei harrera egiteko ardura duten erakundeek bidalita, unibertsitatera sartu ahal izateko baldintza akademikoak eta egoera pertsonal egokia badute. Honako hauek dira baldintza akademikoak, UPV/EHUren Graduko ikasketen gestiorako arautegiaren arabera: batetik, nor bere jatorriko unibertsitatean egin duen graduko ikasketetan gutxienez 30 kreditu aitortzeko moduan egon behar dute eta, bestetik, gaztelaniaren oinarritzko jakite maila izan.

Honetaz gain, aiparutako arautegiaren hirugarren artikuluan UPV/EHU sartzeko eskaria egin nahi duten ikasleek beste bide hauek erabil ahal dituzte:

- Batxilergoa, unibertsitatera sartzeko proba edo Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE) UPV/EHU.
- Unibertsitatera sartzeko proba edo USE UPV/EHUtik kanpo egin duten Batxilergoko ikasleak.
- Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulua, arte plastiko edo diseinuko goi mailako teknikari titulua, edo goi mailako kirol teknikari titulua edo baliokidea duten ikasleak.
- Europako Batxilergoko titulua edo nazioarteko Batxilergoko titulua duten ikasleak.
- Europar Batasuneko estatuetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik datozenak, baldin eta betetzen badituzte kasuan kasuko hezkuntza sisteman unibertsitateetara sartzeko eskatzen zaizkien baldintza akademikoak.
- 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba Proba UPV/EHU egin dutenek izango dute lehentasuna, eta horien ondoren joango dira proba beste unibertsitate publiko batean egin dutenak. Probak publikoak ez diren unibertsitateetan gauditu dituzten ikasleen eskariak banan-banan aztertuko dira. 45 urtetik gorakoentzako proba UPV/EHU egin duten ikasleak
- Lan esperientzia egiaztatzea.
- Unibertsitate titulazioa.
- Europar Batasuneko estatuetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak, baldin eta ez badituzte betetzen kasuan kasuko hezkuntza

sisteman unibertsitateara sartzeko eskatzen zaizkien baldintza akademikoak, eta Europar Batasunekoak ez diren estatuetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak, baldin eta Espainiako hezkuntza sistemara homologatutako Batxilergoko titulua badute. Modalitate honen barruan, USE egin ahal izango da UPV/EHUn.

Honetarako, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikariak aldi berean bilerak eta harreman telefonikoa izaten ditu CEAR, ACCEM eta CRE erakundeetako kideekin.

- Bulegoko teknikariak ikasle izan daitezkeen pertsona bakoitzaren egoera balioesten du, agertu duen dokumentazioaren eta izandako elkarrizketa pertsonalaren argitara. Kasu bakoitza zehatz eta banaka aztertzen da ikasle gaiak aukeratu duen UPV/EHUren ikastegietako dekanotza edo zuzendaritzekin. UPV/EHUren ikastegiak ahalegin handia egin dute kidego honetako pertsonak matrikulatzeko, ikasketak atzerrian hasitako ikasleen kidegoak gradura sartzeko bidea baliatuta.
- Bulegoko pertsonalak laguntza eskaintzen dio ikasle izanen denari UPV/EHUko matrikula egiten, bai linean egin beharreko matrikulazio tramiteetan nola UPV/EHUren ikastegietako idazkaritzetan bertaratzea eskatzen duten tramiteetan. Metatu dugun esperientziaren argitara, ezinbestekoa da ikasle hauei kredituen aitortza eta matrikulazioa egiteko administrazio tramiteak egiten eta bizkortzen eskaintzen zaien laguntza hau, ugari baitira errealitate berri batekin topo egiterakoan edo hizkuntzarekiko zailtasunak eragindako oztupoak.
- 2018/19 ikasturtetik aurrera, asilo-eskatzailleek, nazioarteko babesaren onuradunek edo aberriagabeek tasak ordaintzetik salbuesteko eska dezakete. Salbuespen hori Hezkuntzako sailburuaren [2018ko ekainaren 20ko AGINDUAN argitaratu zen. Agindu horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoek 2018-2019 ikasturterako ordaindu beharreko prezioak finkatzen dira, eta horien salbuespen eta murrizketen onurarako baldintzak zehazten dira](#), eta hurrengo ikasturteetarako ere mantendu egin da.

## **3.2.Laguntza eskaini, unibertsitatearen esparruko premia bereziak betetzeko**

### **3.2.1. Ostatua, garraioa eta mantenua**

Muturreko ahultasun egoeran diren pertsonen salbuespenetzko kasuetan, UPV/EHUk laguntza eskaintzen du oinarriko prestazioetan (ostatua eta mantentzea) bere ikasle errefuxiatu edo asilo eskatu duten ikasleentzat. Prestazio hau, UPV/EHUk [Bilboko Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia](#)rekin eta [Bilboko Blas de Otero unibertsitate egoitzarekin](#) sinatu dituen hitzarmenei esker da posible. Hitzarmenon harira, ikasle hauen egonaldia % 50a besterik ez da fakturatzeko.

Honen osagarri, gainontzeko % 50ari aurre egiteko, UPV/EHUk xede honetara bideratu duen funts ekonomikoa eta Bilboko udalarekin sinatu duen hitzarmena baliatzen dira, Bilboko udalak bere gain hartzen baitu kidego honetako bere udalerriko ikasleen ostatatze gastuaren zati bat.

Inoiz, ikasketak egin ahal izateko, ikasleek joan-etortzeko beharra izaten dute EAeren barruko probintzien barruan zein artean. UPV/EHUk bere gain hartzen ditu egoera honetan diren ikasleen garraioak eragindako gastuak, UPV/EHUk berak xede horretarako eratu duen funts ekonomikoaren bidez.

UPV/EHUk badu izan mantentze gastuetan laguntzeko subentzioak (jantokirako txartelak) EAeren barruan probintzia arteko joan-etorriak egin behar eta zeinek bere etxean bazkaltzeko modurik ez duten ikasleentzat.

### **3.2.2. Ikasteko materiala**

Garapenerako Lankidetzak Bulegoak jasotzen ditu UPV/EHUko ikasle errefuxiatu edo asilo eskatzailearen jardura akademikoa ahal denik eta hobekien gauzatzeko behar diren liburuak, eskuliburuak, fotokopiak eta gainerako materiala eskuratzeko eskariak. Hortaz, administrazio unitate hau arduratzen da ikasleek eskatutako materiala erosi eta ikasleoi emateaz.

### **3.2.3. Hizkuntza ikastaroak**

EAEko hizkuntza ofizialen (gaztelania eta euskara) jakite maila eskasa izaten da errefuxiatu eta asilo eskatzaileen kidegoak izaten duen zailtasunik handiena, areago goi ikasketekin segitu nahi dutenean. UPV/EHU ahalegintzen da eskasia hau arintzen ikasle hauei hizkuntza ikastaro trinkoak eskainita:

- [Ikaslegoarentzako hizkuntza ikastaroak](#). ERASMUS, SICUE, Amerika Latino eta beste norako batzuen truke programetako ikasleek ere UPV/EHU bisitatzen dutela aprobetxatuz, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak dohaineko aukera eskaintzen die ikasle hauei Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusean ikasle bisitariarentzat eskaintzen diren hizkuntza ikastaroetan izena eman dezaten.
- Gaztelania ikasteko lineako ikastaroak unibertsitate barruko zein kanpoko errefuxiatuentzat, Europar Batzordearen "[Errefuxiatuentzako OLS](#)" deritzon ekimenaren barruan. Ekimen honen bidez, lagundu nahi zaie Europar Batasuneko estatu kideei, errefuxiatuen egungo krisiak eragindako migranteak zein bere hezkuntza eta prestakuntza sisteman integratzeko eta pertsona hauen gaitasunak eta trebeziak behar bezala garatuko direla bermatzeko ahaleginetan. Honetara, pertsona hauen heziketak aurrera egingen du hala lanbide hezkuntzan nola goi hezkuntzan eta lan merkaturatzeko aukera handiago eta hobeak izango dituzte. 2016/17 ikasturtean, hainbat lizentzia tramitatu zen, EAEko 5 errefuxiatuk jaso zituztela. Nahiz eta 2016/17 ikasturtean aritu zirenek programa positiboki balioetsi zuten, hainbat zailtasun antzeman ziren sarri askotan lizentzia hauek

erabiltzerakoan eta, handienen artean, nabarmentzekoa da litezkeen onuradun askok eta askok ez dutela ordenagailurik, bereziki EAren barruan. Zailtasun honen harira, UPV/EHUk proposatu zuen 2017/18 eta 2018/19 ikasturteetan unibertsitateko ikasgela informatikoetara sartu ahal izateko aukera jasoko duen proiektua, ikasleak izena eman eta jakite maila egin dezaten eta astean behin erabili eta ikastaroa osa dezaten. Unibertsitate instalazioetara normaltasunez sartu eta erabilia, helburu bikoitza lortuko da, batetik, OLS ikastaroa burutzeko pizgarria eskaini eta, bestetik, errefuxiatuak eta asilo eskatzaileek aukera izan dezaten UPV/EHUko ikasle boluntarioekin elkarrekin dezaten, hezkuntza prozesuan laguntzaile izanen baitituzte.

### 3.2.4. Beste zerbitzu batzuk

UPV/EHUk jada eratuta duen hainbat zerbitzu eskaintzen die errefuxiatu eta asilo eskatzaileei, beren premia bereziak bete ditzaten:

- [Enplegu Zerbitzua](#)
- [Gazteentzako Informazio Zerbitzua](#)
- [Psikologia Aplikatuko Zerbitzua](#)
- Mentoring edo [parekoen arteko tutoretza](#) programa
- Ostatu zerbitzua ([ostatu aplikazioa](#))
- [Klinika odontologikoa](#)
- [Kirol zerbitzua](#)
- [Hurtzaindegia](#), besteak beste

### 3.3. Sentiberatzea eta eztabaidatzea sustatu

UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzak Bulegoak, erakunde eta gizarte mugimendu ezberdinekin batera, hainbat jardura jarri du abian UPV/EHUren hiru campusetan (erakusketak, jardunaldiak eta mintegiak) errefuxiatu eta asilo eskatzaileen inguruko egoerari buruzko eta pertsona hauen integratu beharri buruzko jarrera solidario, kritiko eta parte hartzaileak sustatzera bideratuta. Halaber, UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzak Bulegoak lagundu eta bultzatu egiten ditu unibertsitateko kideek, ikastegiekin eta erakundeekin antolatzen dituzten ekintza solidarioak, bereziki ikasleekin, [Boluntarioritza autogestionatua- gu geu bolondres programaren](#) bidez.

- Informazio gehiago Errefuxioaren inguruan [eztabaida sortzea eta sentsibilizazioari buruz](#).

### 3.4. Diru-laguntzak

Errefuxiatu eta asilo eskatzaileen harrera programaren ekintzak garatu eta finantzatzeko, bada funts bat eta sinatu da zenbait hitzarmen. Honako hauek dira.




### 3.4.1. UPV/EHUK babesaren alorrerako xedatutako funts ekonomikoa.

UPV/EHUK, bertako Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean onetsitako erabakiaren bidez, 10.000 eurotako funts ekonomikoa eratu zuen, urterik urte berritu dena, EAEn errefuxiatutako pertsonak artatzeko ekintzek eragindako salbuespenezko premiak betetzeko eta unibertsitateko kideen sentiberatzeko ekintzak egiteko. Funts hau, UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak kudeatu du, UPV/EHUren 2016, 2017 eta 2018 urteetako aurrekontuetan mantendu zen. Programa honetan artatutako ikasleen kopuruak gora egin zuenez, funtsa 20.000 €-ra handitu behar izan zen 2019an. Laguntza ekonomikoari eskainitako programaren webgunean (<https://www.ehu.es/es/web/oficop/-/persona-errefuxiatuak-gastuak-fondos-ehu>), funts honen esparruan aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako diruz lagundutako kontzeptuak eta jarduerak zehazten dira.


### 3.4.2. Bestelako diru-laguntzak

- **Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren laguntza zuzena**  
2017ko azaroaren 14an, euskal gobernuak onetsi zuen Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturagintzaren arloko Errektoreordetzari 16.000 eurotako laguntza zuzena ematea, nazioarteko babespeko ikasleen (errefuxiatu eta asilo eskatzaileen) 2017/18 ikasturteko unibertsitate tasak (matrikula) eta 2016/17 ikasturteko matrikuletan ordaintzeke zegoen kopurua ordaintzeko.
- **UPV/EHUren eta Bilboko udalaren arteko hitzarmena, UPV/EHUn ikasten duten errefuxiatu eta asilo eskatzaile eta atzerriko ikasleak laguntzeko.** Hitzarmen honek ikasketen egitea erraztu gura die UPV/EHUko ikasle diren errefuxiatu, asilo eskatzaile eta atzerriko ikasleei, Bilboko hirian ostatu eta mantentzeko laguntzak emanik.
- **UPV/EHUren Bizkaiko campuseko ikastetxe nagusi eta egoitzekiko hitzarmenak.** Bi hitzarmen sinatu ziren 2016an UPV/EHUren eta Bizkaiko campuseko ostatu gune biren artean, zehatzago esateko, Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiarekin eta Blas de Otero unibertsitate egoitzarekin. Hitzarmen honi esker, UPV/EHUko graduiko ikasle errefuxiatu eta asilo eskatzaileen egonaldiaren %50a besterik ez da fakturatzeko. **Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko pertsonala** lanean ari da hitzarmen hau Araba eta Gipuzkoan campusetan UPV/EHUri loturiko ostatu guneetara zabal dadin.
- **Letren Fakultatearen funts ekonomikoa.** UPV/EHUren Letren Fakultateak 2016 eta 2017 urteetako aurrekontuaren %0,7a (hurrenez hurren, 651,95€ eta 672,26€) xedatu zuen ikasle errefuxiatu eta asilo eskatzaileen hezkuntza premiak betetzeko behar den material akademikoa ordaintzeko.

## I ERANSKINA. UPV/EHUKO ERREFUXIATUEI ARRETA EMATEKO PROGRAMAN ARTATUTAKO GRADUKO IKASLEAK



1 irudia. Errefuxiatuen programak artatutako graduko ikasleen kopuruaren bilakaera 2016/17 ikasturteetik



2 irudia. Errefuxiatuen programak artatutako graduko ikasleen kopuruaren bilakaera 2016/17 ikasturteetik, sexuaren arabera bereizita

Afganistan
Kolonbia
Ekuador
Salbatzailea
Iran
Mauritania
Nikaragua
Palestina
Peru
Errusia
Sahara
Siria
Venezuela
Yemen

1 taula. Errefuxiatuei arreta emateko programak artatutako graduko ikasleen jatorrizko herrialdea

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
Arte Ederretako Fakultatea
Bilboko Ingeniaritza Eskola
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Farmazia Fakultatea
Filosofia, Antropologia eta Hezkuntza Fakultatea
Gasteizko Ingeniaritza Eskola
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Informatika Fakultatea
Letren Fakultatea
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Zuzenbide Fakultatea

2 taula. Errefuxiatuei arreta emateko programaren bidez artatutako graduko ikasleen ikasketa-zentroak